

Euritan hasi ziren atzo San Joanak, baina, plaza betean egin zitzaien ongi etorria

- Joxan Ruiz eta Xanti Zubeldiak San Joan onak opa eta herritik kanpora daudenak izan zituzten gogoan
- Egunez umeentzako festa izan zen eta iluntzean San Joan suaren bueltan bildu zen jendetza.

HASI dira aurtengo San Joanak, eta eguraldiak azken momentuan nahi izan ez bazuen ere giro onean ekin zieten festei, plazan bildutako hernaniarrek. Joxan Ruiz eta Xanti Zubeldiari egin zien omenaldia Festa Batzordeak, 11:15 inguruan plazan, herriko festak alaitzen urtetan egindako lana eskertzeko. Dantzariak, txalapartariak, txistulariak eta bertsolariak izan ziren. Zubeldia, Txatarra txarangako zuzendari izana da eta zezenetan ere urtetan ibilia da eta ibitzen da. Joxan Ruiz ere festa inguruan asko ibilia da, Xalaparta txaranga, karrozak, konpartsa, aurrekua eta abarreak. Eguerdiko 12:00etan bota zuten txupinazoa bi omenduek eta herriko jai zoriotsuak opa eta arrazoi bat edo beste-rengatik festetan egon ezin duten herritarrak izan zituzten gogoan. Karameloak umeei bota eta bukatu zen San Joanei hasiera emateko ekitaldia. Umeek karameloak eta kaskarrekoak bietatik hartu zuten.

Atzo umeentzako ekitaldiak izan ziren egunean zehar eta gualdera San Joan sua, Akelarrea eta helduago-entzako festa izan zen. Gaur, berriz, goizetik gauera arteko festa izango da, San Joan eguna ospatzeko.

Kontzentrazioa plazan

Udaletxeko langileek paroak eta kontzentrazioak egiten ari dira Udaletxe aurrean, LAB eta ELA sindikatuek deituta, Udalarari konbenioa sinatzera esertzea eskatzeko. San Joan hasierako ekitaldian ere Udal langileak kontzentrazioa egin zuten Udaletxe aurrean. □



Zubeldia eta Ruiz karamelo botatzen, Txupinazo ondorenean eta behean umeak karamelo biltzen.



Dantza suelto txapelketa gaur

KRISKITIÑA dantza taldeak antolatuta dantza suelto txapelketa egingo da gaur plazan, 17:30etatik aurrera. Goi mailako 11 bikotek hartuko dute parte, Hernani, Azkoitia, Mendaro, Bergara, Lazkao, Arama, Donosti, Sestao, Leioa eta Urdulizkoak. Hernanitik Aitor eta Amaia Parrondo aterako dira, oraintsu Euskal Herriko txapela jantzi berriak, eta Ekain Sardon eta Arantxa Garin, eta Xabier Segura eta Lierni Martiarena.

Txapelketaz gain, Arantxa Garinekin dabilzan dantzari txikiak ere azalduko dira gaur tabladura, abileziak erakustera. □

EKAINAK 24 OSTEGUNA

EGITARAUA

09:00 Diana, Mendirik Mendi musika eta txistulari bandaren eskutik.

09:00 Hamalagarren amurrai-arrantza Lehiaketa eta zortzigarren Juan Antonio Estebanen oroimenezko saria.

11:00 Meza Nagusia Parrokian, zaindariaren omenez.

12:00 Haurren danborrada.

12:00 Txistulari Bandaren kontzertua.

13:00 Musika Bandaren kontzertua.

17:00 Ume jolasak Biteri plazan: Xurdirin ipotxen mundua.

17:30 Dantza suelto txapelketa Kriskitiña dantza taldeak antolatuta.

20:00 Preso eta errefuxiatuei omenaldia, Gudariaren plazan.

22:45 Su artifizialak.

23:00 Musika Molotoffeko txoznan.

23:00 Berbena Tilosetan Kresala taldearekin.

23:00 Xalaparta txaranga kalean

24:00 Kalejira eta herri dantzak dultzaineroekin. Bukaeran, Larrain dantza Plaza Berrian.

Preso eta errefuxiatuei omenaldia egingo zaie gaur plazan

AMNISTIAREN Aldeko Batzordeak antolatuta, preso eta errefuxiatuei omenaldia egingo zaie gaur Gudariaren plazan, arratsaldeko 20:00etan hasita.

Bestalde, Amnistiaren Aldeko Batzordeak Errepresaliatu eguna ere antolatu du aurtun, larunbaterako. Bazkaria dago Plaza Berrian eta txartelak Garin, Oindi eta Rioja tabernetan daude. Bazkal ondoan kantu zaharrak abestuko dituzte musikari talde batek lagunduta. □

ZUMITZA
TABERNA




ZUMITZA Taberna - Nagusia 50



BERRIRO ZABALIK

- Eguneroko menua
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Ondo pasa
San Joan jaiak!



San Joan
jai zoriotsuak
opa dizkizuegu.
GORA SANJOAN

OKINDEGIA
ANTZIOLA

Bi aukera dituzu:
Ogia, pastelak, kafea,
gozokiak, refrescoak...
eta ordenagailuak.
MONTEBIDEO 3


Eguneroko ogirik onena
ANTZIOLA 3 - 943 55 17 91

HERNANI HIZKUNTZAK (Gure Ingelesetxea)

ZORIONAK Xabier, Cambridge First azterketa gainditzeagatik. **Zorte on,** Irati, Juan, Aitziber, Ion, Amaia, Ion Ander, Arantxa, Ander (First), eta Urko eta Julen (Advanced)

UDAKO IKASTARO ERDI-TRINKOAK - MATRIKULA ZABALIK

Deitu Alan/Jo: **943 33 11 08 - KALE NAGUSIA 41, 1**
Ondo pasa San Joan jaiak!



ILEA PAINDEGIA

Urratsez urrats...

Sanjoanak!

Gora hernaniarrek !!!

Goiz Eguzki Jubilatu Etxea, berritzen

JUBILATU Etxeak batzarrean eman zuen aurten egitekoak zituzten lanen berri, eta etxeak dagoeneko beste itxura bat hartu du, kanpo eta barru. Goiz Eguzkirako sarrera bera erabat berritu dute eta aterpea jarri diote, buelta kristalez inguratuta. Horretaz gain, lehen atarian burnizko eskailera haundi bat zegoen goiko plantara zijoana. Hori sarreratik kendu, eta atzeko partean jarri dute. Etxe barruan ere ari dira zerbitzuak berritzen: hanketako kura egiteko gelako ekipamendua erabat berritu dute "asistentzia hobeia izan eta jendea erosoago egoteko" adierazi dute bertako arduradunek; internet eta informatika zerbitzua ere martxan da eta Biterin informatika ikas-taroak egingo dituzte.

Gela polibalentea

Aldaketa gehiago ere badira Goiz Eguzkin. Gaur egunean beheko plantan egiten dira kontzertu eta kultur ekitaldi guztiak. Aurrera begira, ordea, aktibitate horiek denak lehenbiziko plantan egingo dira, propio horretarako ekipamendua jarriko baitute eta horretan ari dira.



Jubilatu Etxeko atariak beste itxura bat du orain.

Lehenengo plantan sukualdea ere badago eta dena berria jartzen ari dira. Bazkideek soziedade batean bezala erabiltzeko aukera izango dute.

Sarrera berria, ekipamendu berriak, ordenadoreak... Jubilatu Etxeak itxura berria ere izango du, etxe osoa kanpotik pintatu egingo baitute. Goiz Eguzkin bola tokia ere badute, baina, neurritz ez da nonbait erreglamentarioa. Orain goitik kendu eta beheko parkean berria egiteko asmoa dute, erreglamentarioa eta estalia, eta konpetizio ofizialetan sartzea da helburua. Berritze

lanetako puskarik haundiena Ongintzak finantziatuko du.

Ekitaldi eta aktibitateei dagokionez, Jubilatu Etxeak mugimendu ona darabilki: eskurtsioak, hitzaldiak, kontzertuak... Arrakasta gehiena duena, dudarik gabe, igandetako baileia da, Goiz Eguzki txiki gelditu baita.

Taberna zerbitzuarekin ere pozik dira Jubilatu Etxean. Zerbitzua, ordea, ez dute jubilatuentzako bakarrik planteatzeko, eta zabalik dago nahi duen guztiarentzat. Menuak ere ematen dituzte. Larunbat eguerdian festa izango da. □

Herri Arteko Pelota Txapelketako sarrerak salgai Oindi tabernan

HERNANI eta Azpeitiaren arteko finala ikusteko txartelak salgai jarriko dituzte Hernanin. Gaur Oindi tabernan egongo dira salgai, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Partidua igandean da Atano pelotalekuan, goizeko 11:00etan hasita. □

Herriko Xake Txapelketako hamargarren jardunaldia

HERRIKO Xake Txapelketa azken faseetan da dagoeneko eta bost jokalarik gelditzen dira. Hamargarren jardunaldiko bi partidak dira: Josetxo-Ixidro Esnaola eta Eneko Pastor-Breogan. Mikel Apezetxeak atsedena du. Partidak ekainaren 28a aurretik jokatu behar dira. □

Txosnetan ere egitarau zabala

■ Egunero antolatu ditu ekitaldiak Txosna Batzordeak ■ Gaur DJak dira Molotoffeko txosnan.

TXOSNA Batzordeak bere egitaraua egin du San Joan jaietarako, asteazkenetik igandera. Zenbait ekitaldi festen egitarauan daude eta beste batzuk Txosna batzordearen egitarauan bakarrik azaltzen dira. Atzo triki poteoa izan zuten eguerditik arratsaldera bitartean eta bihar ere badago eguerdiko 12:00etatik aurrera.

Molotoffeko txosnan

Molotoff irratiak txosnan musika gau bereziak egongo dira gauero. Bart Selectah Sound System izan zen, gaur gauean Disko Jartzaileak izango dira eta bihar, gaueko 23:00etatik aurrera, Reggae Sound System ariko da. □

EGITARAUA

EKAINAK 24:

20:00 Preso eta errefuxiatuei omenaldia eta ondoren manifa.

23:00 DJ-ak Molotoffeko txosnan.

EKAINAK 25:

12:00 Triki poteoa.

14:00 Herri Bazkaria Plaza Berrin.

19:00 Kalejira elektrotunarekin.

23:00 Reggae Sound System Molotoffeko txosnan.

EKAINAK 26

07:00 Txokolatada arkupean.

14:00 Errepresaliatuen aldeko bazkaria eta kantu herrikoiak.

EKAINAK 27

19:00 Malabar tailerra Tilosetan.

Kontzertua gaur Gunean

GUNEA garagardotegian *Acido C* taldearen kontzertua dago gaur, gauerdiko 24:00etan hasita. Ekainak 25 eta 26ean, ostirala eta larunbata, berriz, *DJ Polain&Lou K.* izango dira musika jartzen, gauerdiko 24:00etatik aurrera. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103
- ▶ Alkoholiko anonimo: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Aizpuru Latsunbeberri 11 ☎ 943 336077
- ▶ Gauez: Aizpuru Latsunbeberri 11 ☎ 943 336077

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... ☎ 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Bi ohe artikulatu (motorrekin artikulatzen dira) dauzkat salgai. 90 zmk zabalerara dute eta berri berriak daude. Prezioa adosteko Deitu: ☎ 943 33 37 67 . ☎ 943 33 05 84

Unibertsitateko ikasleak, euskalduna eta arduraduna, haurrak zaindu edo klase partikularrak emango lituzke (goizez). Deitu: ☎ 679 92 79 96



GAUR KONTZERTUA ACIDO C



24:00etan

ARGABAIN KALEA 2-BEHEN . HERNANI . ☎ 943 33 25 29


- ☛ EGUNEROKO MENUA
- ☛ GARAGARDOTEGIKO MENUA
- ☛ GARAGARDO AUSERA ZABALA
- ☛ PIERRADE, KODILLOA, FONDUE, SALTATXAK...

LEOKA TABERNA

Kardaberaz 3, HERNANI



San Joan zoriontsuak opa dizkizuegu



IZARRE JATETXEA



San Joan jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Pol. Lastaola
-Tel.: 943 55 0640-
HERNANI (Gipuzkoa)

APEADERO TABERNA



San Joan jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

Kardaberaz 4 ☎ 943 330 414

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu



Iturralde

M^a Pilar Anzizar Balerdi
Tel.: 943 330 461

Iturralde Baserria - Ereñozu Auzoa
20120 HERNANI




HERNANIKO UDALA

2004 SAN JOAN JAIK

Honen bidez jakinarazten da hamalau urtetik beherakoek ezingo dutela 2004ko San Joan jaiak direla eta egingo den sokamuturrean parte hartu, hala agintzen baitu Zezen Ikuskizun Tradizionalak arautzen dituen uztailaren 20ko 215/1993 Dekretuak.

Hernani, 2004ko ekainaren 12a
Alkatea



EDARITEGIA

Ogitartekoak eta Pintxoak

Ondo pasa San Joan-ak!!

Ezkiaga 5 - ☎ 943 55 20 07